

2026^{ko}
URRIAK
22

INDARKERIA MATXISTAK NERABEZAROAN X. JARDUNALDIA

Intxaurreondo Kultur Etxea (Felix Gabilondo plaza 1)

Komunitatetik



JARDUNALDIA KOMUNITATETIK

Jardunaldion 10 urteko ibilbidean, elkarrekin hausnartu dugu nerabezaroko indarkeria matxistak ulertzeko eta lantzeko funtsezkoak diren hainbat alderdiri buruz (tratu onak, bullyingaren azterketa genero ikuspegitik, sexu heziketa hezkidetzalea, interseksionalitatea eta ziberindarkeria, besteak beste).

Aurten, esparru komunitarioaren potentzial positiboa argiago marrazten den une honetan, ikuspegi hori bizi, problematizatu eta sakontzeko aukera emango diguten hainbat formatu planteatzen dizkizuegu. Parte sentitzen garen leku hori dira komunitateak, babestuta sentiarazten gaituztenak, elkarrekikotasun-loturak dauden lekua. Indibidualismoa saihestezina eta gero eta indartsuagoa dela sinestarazi nahi diguten arren, pertsonok komunitatean gauzatu eta sos-

tengatzen gara. Aldi berean, komunitateak zerbait performatiboa dira: egitean, sentitzean eta pentsatzean gauzatzen dira. Hori guztia are garrantzitsuagoa da nerabezaroan.

Indarkeria matxistak (beste hainbat indarkeriekin gurutzatuta) prebenitzeko eta haien aurrean esku hartzeko orduan, gure hezkuntza-inguruneek komunitate zaintzaile, erreparatzaile, errestauratibo, erantzunkide eta hezitzaile gisa jarduten al dute? Esparru horretan, nerabeei ikuspegi alarmista, zigortzaile, helduzentriko eta abarretik begiratzen al diegu, ala agentziadun subjektu direla eta komunitatean ahots propioa dutela ulertuta? **Jardunaldi honetan, balioa eman nahi diegu feminismotik indarkeria horiei heltzeko mekanismoak sortzen eta esperimentatzen dituzten komunitateei.**

KOMUNITATETIK

>> 2026/10/22

>> 9:00-16:00

> 8:45-9:00

ONGIETORRIA ETA MATERIALEN BANAKETA

> 9:00-9:30

JARDUNALDIAREN HASIERA ETA AURKEZPENA

> 9:30-11:30

VIVA EL #AMORDELBUEÑO:

Acompañando a las nuevas generaciones en la prevención de violencia de género.

Isa Duque (Psico Woman)

A través de una propuesta “poco usual” se invitará a las participantes a trabajar sobre todo la parte actitudinal a la hora de acompañar a personas adolescentes/jóvenes en la promoción de los buenos tratos. Con una base centrada en pedagogías críticas e inclusivas, donde los cuerpos y el aprendizaje desde el goce están en el centro, se trabajará en la línea de incorporar actitudes y saberes actualizados para conectar con las necesidades de las nuevas generaciones.

> 11:30-12:00

ATSEDENALDIA

> 12:00-13:30

MAITASUNAREN JOKOA

EASO Politeknikoa LHII, Sorginlore Gizarte Elkartea eta Ikertze Kultur Elkartea

“Maitasunaren Jokoa” tresna ludiko-pedagogiko feminista aurkeztuko da, gazteek gazteentzat sortu eta dinamizatu. Maitasunarekin lotutako botere ha-

rremanek, arau sozialek, kultur espektatibek eta esperientzia korporalek zeharkatutako gaiak lantzen ditu.

> 13:30-14:30

BAZKARIA

> 14:30-15:45

KOMUNITATEAREN BOTEREA ETA ARDURA INDARKERIAREN AURREAN

Berria FM podcast-a

- **Magala Abokatuak**
- Bea Ilardia Olangua
- **Emagin elkarte** - Ainara Lasa Muñoz
- **Bideberri BHI** - Garazi Lopez de Lacalle Larreina

Berria FMk gidatutako podcast saioa

Indarkeria matxistari aurre egiteko, komunitatearen ardura eta indarra jarriko dira erdigunean, hiru esperientzia gurutzatuz.

- **Magala Abokatuak**, justizia feminista eta transformatzaillearen inguruan eta erreparazioaren inguruan hitz egingo digute, modu praktikoan lurreratuz.
- **Emagin elkarteak**, DAR-DAR proiektuaren bidez, herri mailan lanketa kolektiboa nola eraiki azalduko du, indarkeriei aurre egiteko, sare sendo bat ehunduz.
- **Bideberri BHIk**, hezkuntza-komunitetik eta gorputz-hezkuntzatik abiatuta, gazteen beharretan oinarritutako prozesua azalduko du.

> 15:45-16:00

ITXIERA

URRIA

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

X. JARDUNALDIA

> 8:45-9:00

ONGIETORRIA ETA MATERIALEN
BANAKETA

> 9:00-9:30

JARDUNALDIAREN HASIERA ETA
AURKEZPENA

> 9:30-11:30

VIVA EL #AMORDELBUENO
Isa Duque (Psico Woman)

> 11:30-12:00

ATSEDENALDIA

> 12:00-13:30

MAITASUNAREN JOKOA

> 13:30-14:30

BAZKARIA

> 14:30-15:45

KOMUNITATEAREN BOTEREA ETA
ARDURA INDARKERIAREN AURREAN
Berria FM podkast-a

> 15:45-16:00

ITXIERA